

DONOSTIA / Liburuaren eta haur literaturaren egunak batu eta etzi ospatuko dituzte

Ostiralean ordutegi berezia izango dute donostiako liburutegiek. Patxi Zubizarretak eta Joserra Senperenak "Joan" ikuskizuna aurkeztuko dute

DONOSTIA. Patxi Zubizarretak zera galdetu zion atzo bere buruari: 'Laster ez ote dugu Liburuaren Nazioarteko Eguna Gaixotasun Arraroen Egunean ospatu beharko?'. Oraingoz behintzat ez da bete idazlearen profetia eta, beraz, ospakizun honek bere egun propioa izango dute Donostian, ostiral honetan, hain justu.

Liburuaren Nazioarteko Eguna (apirilak 23) eta Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna (apirilak 2) aurreratu eta biak egun berean, ostiralean, ospatzea erabaki du hiriburuko Liburutegi Zerbitzuak. Hala jakinarazi zuen atzo Arantza Urkia zerbitzuburuak, Aitziber Alonso ilustratzailea, Patxi Zubizarreta idazlea eta Joserra Senperena piano-jolea lagun zituela. Urkiak jakinarazi zuenez, bi ospakizunak jai egunetan tokatzen zirela kontuan izanda, ekitaldiak aurreratzea erabaki dute Donostiako liburutegiek. Horregatik, etzi ordutegi berezia izango dute eta ekintza bereziak hartuko dituzte.

Liburutegi nagusian, Orixe ikastolaren laguntzarekin, ilustrazio tailerra zuzenduko du Aitziber Alonsok, Mainer Galarzak ipuinak kontatuko ditu eta Olatz Beobide eta Ramon Agirrek irakurketak egingo dituzte. Gainera, 18.00etan, Juan Carlos Alonsok irakurtzearen garrantziari buruzko hitzaldia eskainiko du eta Maite Francok ipuin kontaketa egingo du (18.00etan). Egunari amaiera emateko, Patxi Zubizarreta eta Joserra Senperenak Joan liburuan oinarritutako errezitaldia plazaratuko dute Victoria Eugeniako Club Aretoan (19.30ean). Idazleak zehaztu zuenez, irudiak, musika eta testuak tartekatzen ditu ikuskizun honek. Sarrera doakoa izango da, baina gonbidapenak jaso beharko dira egun berean antzokiko lehiatilan. Egitarau berezia, gainera, apirilean zehar luzatuko da. Bestalde, Aitziber Alonso izan da aurten Liburuaren Egunerako kartela sortu duena. Azaldu zuenez, bere 'munda erakusten' saiatu da okasiorako egindako lan horretan, hau da, 'ura eta fantasia' tartekatzen.